

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GORBEIALDEKO KUADRILLA

**Hutsen zuzenketa, euskara-teknikari plaza bat, ingurumeneko teknikari-plaza bat eta bi administrari laguntzaile lanpostutarako deialdien oinarri espezifikoen merezimenduen baremoari buruzko I. eranskinean. Eranskin horrek zuzendu egiten du 3467/2022 iragarkia, 2022ko abenduaren 21eko 146 zenbakiko ALHAOn argitaratua**

2022ko abenduaren 21eko 146 zenbakiko ALHAOn, besteak beste, euskara-teknikari plaza bat, ingurumeneko teknikari plaza bat eta bi administrari laguntzaile lanpostu betetzeko oinarri orokorrak eta espezifikoak argitaratu ziren, lehiaketa-sistemaren bidez, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdiaren markoan. Lehendakaritzaren 2022ko abenduaren 13ko ebazpen bidez onartu zen deialdi hori.

Behin oinarriak argitaratuta, ondorengo akatsak atzeman dira:

Lehenengoa: merezimenduen baremoari buruzko I. eranskineko a) ataleko a.1 eta a.2 azpiataletan, euskara-teknikariaren lanpostuan, esperientzia orokorraren eta esperientzia espezifikoaren balorazioari dagokionez, hurrenez hurren, honako hau dioen lekuan:

“Administrazio bereziko eskalako goi-mailako teknikarien azpieskalan edo euskara-teknikarien kategorian egindako zerbitzuengatik.”

Hau esan behar du:

“Administrazio bereziko eskalako erdi-mailako teknikarien azpieskalan edo euskara-teknikarien kategorian egindako zerbitzuengatik.”

Bigarrena: merezimenduen baremoari buruzko I. eranskineko a) ataleko 2. azpiatalean, ingurumeneko teknikariaren lanpostuan, esperientzia espezifikoaren balorazioari dagokionez, honako hau dioenean:

“Administrazio bereziko eskalako goi-mailako teknikarien azpieskalan edo ingurumen-teknikarien kategorian egindako zerbitzuengatik.”

Hau esan behar du:

“Administrazio bereziko eskalako erdi-mailako teknikariaren azpieskalan edo ingurumen-teknikariaren kategorian egindako zerbitzuengatik.”

Hirugarrena: merezimenduen baremoari buruzko I. eranskineko a) ataleko a.1 eta a.2 azpiataletan, administrari laguntzaileen bi lanpostuetan, esperientzia orokorraren eta esperientzia espezifikoaren balorazioari buruzkoetan, hurrenez hurren, honako hau dioenean:

“Administrazio orokorreko eskalako azpieskala osagarrian edo administrari laguntzaileen kategorian emandako zerbitzuengatik (C taldea, 1 azpitaldea), baldin eta C taldeko 1 azpitaldeko titulazio propioa eskatzen badu.”

Hau esan behar du:

“Administrazio orokorreko eskalako azpieskala osagarrian edo administrari laguntzaileen kategorian (C taldea, 2 azpitaldea) emandako zerbitzuengatik, baldin eta C taldeko 2 azpitaldeko titulazio propioa eskatzen badu.”

Denek jakin dezaten ematen da argitara.

Murgian, 2023ko martxoaren 22an

*Presidentea*

**AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA**